



Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen Mahai Negoziatzailea

ORDEZKAGUNEARI BURUZKO AKORDIOA

Lakua, 2022ko martxoaren 28a.

Gaurko Negoziazio Mahaian bildutako ordezkariak akordio hau sinatzen dute, eta aipatutako bileraren aktaren eranskin gisa jasotzen da.

Akordioaren oinarria:

Hurrengo hitzarmen kolektiboan Hezkuntza Bereziko hezitzaileen ordezkapenei buruzko araudi osoa negoziatzen jarraitzea alde batera utzi gabe 2018ko apirilaren 13ko akordioan ezarritakoari jarraiki, eta ordezkapenak ahalik eta modurik eraginkorrenean betetzea bermatuko duen sistema bat ahalik eta lasterren abian jartzea beharrezkoa dela aintzat hartuta, Hezkuntza Bereziko hezitzaileen ordezkapenen erregimena arautzen duen lan-legepeko irakasleen eta hezitzaileen Hitzarmen Kolektiboaren III. eranskina aldatzea eta zerrendetatik kanpo uzteari buruzko 2020ko martxoaren 13ko akordioa aldatzea **adosten** da. Aldaketa hori indarrean jarriko da Ordezlagunea aplikazioa hezitzaileen kolektiboaren plazak eskaintzeko eta esleitzeko prest dagoen unean, eta, alde horretatik, erabaki da paragrafo jakin batzuk aldatzea eta gehitzea lehen aipatutako III. eranskineko 1. zenbakiari — "Funtzionamendu Orokorra" — eta 2. zenbakiari — "Funtzionamendu orokorraren salbuespena" —, bai eta 2020ko martxoaren 13ko akordioaren paragrafo jakin bat kentzea ere, zerrendetatik kanporatzeari dagokionez. Paragrafo horiek honela idatzita geratuko dira:

1. atala.- Hitzarmen kolektiboaren III. eranskineko Funtzionamendu orokorra.

Paragrafo hau aldatzen da:

"Ordezkapena egin behar denean, dagokion zerrendara jo, eta eskura dagoen zerrendako lehenengo pertsonari eskainiko zaio".

Paragrafo hori honela geratzen da idatzita:

- Plazak Ordezlaguneraren bidez esleitzea:

Hezitzaileen plaza bat bete behar denean, Ordezlagunea aplikazioaren bidez eskainiko da.

Oro har, kontratua hasi aurreko laneguneko 12:30ak arte ikastetxeko zuzendaritzek jakinarazitako ordezkapen guztiak sartuko dira Ordezlagunean.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Aplikazio horrek kategoria bakoitzeko hautagaien zerrenda-ordena hartuko du kontuan, eta honako esleipen mota hauen arabera esleituko da plaza:

1) Borondatezko esleipena: lanpostua borondatez eskatu duen eta zerrendetan hobekien kokatuta dagoen hautagaiari esleituko zaio plaza.

Esleipen horretan, birbaremazioan aukeratutako lurraldeko eta lanaldiko plazak aukeratu ahal izango dira, baita ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden plazak ere, nahitaezko esleipenaren bidez plaza horien esleipendun ez izatea aukeratu bada ere.

2) Nahitaezko esleipena: hautagairik ez badago eskainitako lanposturen bat eskatu duena edo horietako bat ezin izan bazaio eskatzaileari esleitu eskatutako baldintzak betetzen ez dituelako, nahitaez esleituko da plaza, zerrendetan egoera okerreanean dagoenetik hasita, betiere lanaldiei eta lurraldeei dagokienez dituen lehentasunak errespetatuz eta bere bizilekutik 50 km baino gehiagora dauden lanaldi partzialei uko egiteko edo ez egiteko aukera errespetatuz.

Bi esleipen-motetan, hautagaiak lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna betetzen duela egiaztatuko da.

Hautagai bat irakasleen zerrendetan eta hezitzaileen zerrendetan okerren kokatzen dena bada eta plaza bat nahitaez esleitu behar bada, hezitzaileen plaza esleituko zaio.

Era berean, hautagai bat hezitzaileen zerrenda batean edo gehiagotan kokapen okerrean duen pertsona bada, kategoria ordena honen arabera esleituko da plaza: hezkuntza laguntzako espezialista, zeinu-hizkuntza interpretea, fisioterapeuta, okupazio-terapeuta, gizarte-langilea, transkribatzailea eta material-egokitzailea.

Ez dira nahitaez esleituko ospitaleko, etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde zentroetako plazak, txanda-kontratuak (lanaldi partzialekoak badira) eta ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialeko plazak, baldin eta aukera hori egin badute. Aukera hori komuna izango da hautagaia barmeratuta dagoen hezitzaileen zerrenda guztietarako. Ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialak nahi dituzten ala ez erabakitzeke aukera hori ikasturtean zehar aldatu ahal izango da.

Txanda-kontratuei dagokienez, oro har, kontratua hasi baino 7 egun natural lehenago eskainiko dira.

Hautagaiek egin beharreko izapideak:

Hautagaia Ordeztagunaren sartzan den lehen aldian, nahitaez baliozkotu beharko du bere ohiko bizilekua, ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialeko plazei uko egitea edo ez erabaki beharko du (aukera hori Hezkuntza Bereziko kategoria guztietarako komuna izango da), eta telefono mugikor bat eta posta elektronikoa izan beharko du. Baliozkotze hori gabe, ezingo du eskabiderik egin.





Hautagaiak bere lan-egoera aldatu ahal izango du Ordeztagunen, 9:30etik 13:00etara:

-Hautagaia indarrean dagoen kontratu batekin lanean badago:

Hautagaiak kontratu bat indarrean badu, baina jakin badaki bere kontratua egun horretan bertan amaitzen dela eta Ordeztagunen parte hartu nahi duela, hurrengo egunean lan egiteko moduan egongo baita, bere lan-egoera lanerako prest izatera aldatu ahal izango du.

Aitzitik, hautagaiak kontratu bat indarrean badu baina jakin badaki bere kontratua egun horretan bertan amaitzen dela, eta alegatu nahi badu justifikatutako uko egitea duela ezein lanposturen esleipendun ez izateko, bere lan-egoera justifikatu gabeko uko egite egoerara aldatu ahal izango du, eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du bost egun balioduneko epean.

Uko egiteko arrazoi justifikatuak Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitakoak izango dira, eta behar bezala justifikatu beharko dira dagokion justifikazio-dokumentazioaren bidez (egitatea badela egiaztatuz).

- Hautagaia lan egiteko moduan badago:

Hautagaia lan egiteko moduan badago eta inolako plazaren esleipendun ez izateko justifikatutako uko egitea duela alegatu nahi badu, bere lan-egoera aldatu ahal izango du justifikatu gabeko uko egitera, eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du bost egun balioduneko epean.

Kasu horietan, eta salbuespen gisa, justifikatutako uko egite arrazoiak 13:00ak baino geroago gertatzen bada eta hautagaiari plaza bat esleitzen bazaio, uko egin ahal izango du, hori behar bezala justifikatuz gero (13:00ak baino geroago gertatu dela) eta arrazoiak hitzarmen honetan ezarritako justifikatutako uko egiten artean sartzen bada.

Justifikatutako uko egite arrazoiak Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitakoak izango dira, eta behar bezala justifikatu beharko dira dagokion justifikazio-dokumentazioaren bidez (egitatea badela egiaztatuz).

- Hautagaia justifikatutako uko egite lan-egoeran badago:

Hautagaia justifikatutako uko egite lan-egoeran badago eta lan egiteko moduan egoerara igaro nahi badu, bere lan-egoera aldatu ahal izango du, dokumentazio justifikatzailea Ordezkaritzari uko egitea eragin zuen gertakaria amaitu dela jakinarazteko unean (gertakaria amaitu dela egiaztatuz).

Ordeztagunen plazak eskatzeari dagokionez, hautagaiek eskaera telematikoa egin beharko dute aplikaziora sartuz eta bere lehentasunak, oro har, 13:30etik 15:30era bitarteko artean aurkeztuz, eta ikastetxeak bermatuko die bi ordu horietan jarraian jantokia egiten duten langileei eskaera egin ahal izatea, baldin eta egun horretan bertan kontratua amaitzen badute Hezkuntza Laguntzako espezialistaren kategorian.

Halaber, hautagiaren ardura izango da, oro har, 15:35etik aurrera argitaratzen den lanpostuen esleipena ezagutzeko aplikaziora egunero sartzea.

Hezitzaileen zerrenda batean baino gehiagotan egonez gero, espezifikotasunak:

Hezkuntza Bereziko kategoria bakoitzeko lan-egoera desberdina izan daiteke.

Eskaintzan kategoria desberdinetako plazak tartekatuko dira. Hala ere, Ordeztagunereren esleipen bakoitzean, hautagaiari plaza bakarra esleitu ahal izango zaio.

Hautagaiari hezitzaileen kategoria batean lanpostu bat esleitu bazaio (eta, ondorioz, kategoria horretan lanean ari bada), baina beste kategoria bateko lanpostu bat lortu nahi badu, Ordeztaguneren parte hartu ahal izango du borondatez, lanpostu bat lortzeko, kontratuari uko egiteagatik aplikatu ahal zaion zigorrarekin.

Hala ere, ez da nahitaezko eskaerarik sortuko hezitzaileen kategoria batean lanean dagoen bitartean.

Hezitzaileen kategoria batean lanean ari dela, hautagaiari beste kategoria bateko plaza bat esleitzen bazaio hezitzaileen kategorian, esleitu eta hurrengo egunean esleitutako plaza berrira joan beharko du, eta ordura arte lan egiten zuen ikastetxeari jakinarazi beharko dio amaitu dituela bere zerbitzuak.

Irakasleen eta hezitzaileen zerrendetan egonez gero, espezifikotasunak:

Irakasleen eta hezitzaileen zerrendetako lan-egoera desberdina izan daiteke. Era berean, lan-egoera desberdina izan daiteke Hezkuntza Bereziko kategoria bakoitzaren barruan.

Eskaintzan irakasleen eta hezitzaileen plazak tartekatuko dira. Hala ere, Ordeztagunereren esleipen bakoitzean, hautagaiari plaza bakarra esleitu ahal izango zaio.

Balizko kasuistika:

1) Hautagaiari hezitzaile plaza bat esleitu bazaio:

Hezitzaile plaza baten esleipenduna izan bada (eta, ondorioz, Hezkuntza Bereziko kategoria horretan lanean ari bada), Ordeztaguneren borondatez parte hartu ahal izango du irakasle gisa plaza bat lortzeko. Hala ere, ez da nahitaezko eskaerarik egingo hezitzaileen kategoria batean lanean dagoen bitartean.

Hezitzaile gisa lanean egonik irakasle-plaza bat esleitzen bazaio, Saileko ikastetxe publikoetan hezitzaile gisa hiru urteko lan-zerbitzurik egiaztatzen ez badu kanporaketarekin zigortuko da.

Hezitzaile gisa lanean ari dela, hautagaiari irakasle-plaza bat esleitzen bazaio, esleipena egin eta hurrengo egunean irakasle-plazara joan beharko du, eta ordura arte lan egiten zuen ikastetxeari jakinarazi beharko dio amaitu dituela bere zerbitzuak.



2) Hautagaiari irakasle-plaza bat esleitu bazaio:

Irakasle-plaza baten esleipenduna izan bada (eta, ondorioz, irakasle-lanetan ari bada), Ordeztagunen parte hartu ahal izango duzu, borondatez, hezitzaile gisa plaza bat lortzeko. Hala ere, ez da nahitaezko eskaerarik egingo irakasle bezala lanean dagoen bitartean.

Dena den, irakasleen zerrendetarako ezarritakoaren arabera dagokion zigorra aplikatuko da”.

Paragrafo hau aldatzen da:

“f) Badago eskaintako ordezkapenari uko egitea seme-alabaren bat hiru urte bete arte zaindu beharra izanez gero. Horrela bada, etenaldi iragankorreko kasu hauetakoren batean daudenek deitua izateko eskubideari eutsiko diote, halako egoeran ez baleude bezalaxe, eta eskaini zaien estaldura-denbora egindako zerbitzuen denbora bezala zenbatuko zaie, zerrenda birbarematzeko eragin soiletarako. Ondorio berorietarako, postua hautatu ahal izango dute ikasturtearen hasieran lanpostuak esleitzen direnean”.

Paragrafo hori honela geratzen da idatzita:

“f) Badago **Ordeztagunen esleitutako plazari** uko egitea seme-alabaren bat hiru urte bete arte zaindu beharra izanez gero eta eskaini zaien estaldura-denbora egindako zerbitzuen denbora bezala zenbatuko zaie, zerrenda birbarematzeko eragin soiletarako. Horrela bada, etenaldi iragankorreko kasu hauetakoren batean daudenek **beren lan-egoera Ordeztagunen lan egiteko modura aldatzeko eta zerbitzu eraginkorrak ematen hasteko eskubideari eutsiko diote**. Ondorio berorietarako, postua hautatu ahal izango dute ikasturtearen hasieran lanpostuak esleitzen direnean”.

Paragrafo hau aldatzen da:

“i) Borondatez onartzekoak izango dira honako eskaintza hauek: Terapia Zentroetako premien aldi baterako estaldura (espezifikotasun funtzionala aintzat harturik), errelebo-kontratu bidezko estaldurak (lanaldi osora iristen ez diren denbora-luzerakoak), eta, ohiko bizilekutik 50 km baino urrutiago dauden lanaldi partzialekoak”.

Paragrafo hori honela geratzen da idatzita:

“i) Borondatez onartzekoak izango dira honako eskaintza hauek: Terapia Zentroetako premien aldi baterako estaldura (espezifikotasun funtzionala aintzat harturik), errelebo-kontratu bidezko estaldurak (lanaldi osora iristen ez diren **lanaldi partzialeko txanda-kontratuen kasuan**), eta, ohiko bizilekutik 50 km baino urrutiago dauden lanaldi partzialekoak. **Txanda-kontratuak Ordeztagune bidez eskainiko dira, oro har, kontratua hasi baino 7 egun natural lehenago**”.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Paragrafo hau aldatzen da:

"Lanpostu huts bat estali behar denean bitartekotasun-kontratu baten bidez, harik eta lanpostua erregelamenduz estali arte, zerrendako hurrenkera zorrotz errespetatuz egingo da kontratua, eta, horretarako, lehen tokian dagoenari deituko zaio. Baldin eta bitartekotasun-kontratu bat indarrean balu, ordezkapen bat egiteko, lan edo zerbitzu jakin baterako edo zeregin-metaketakoa, horri uko egin eta lanpostua estaltzeko eskaintzen zaion bitartekotasun-kontratua har lezake. Indarrean dagoen kontratu bati uko egiteak, kasu honetan, ez du ekarriko zerrendetatik kanpo geratzea".

Paragrafo hori honela geratzen da idatzita:

"Lanpostu huts bat estali behar denean bitartekotasun-kontratu baten bidez, harik eta lanpostua erregelamenduz estali arte, zerrendako hurrenkera zorrotz errespetatuz egingo da kontratua, eta, horretarako, lehen tokian dagoenari deituko zaio. Baldin eta bitartekotasun-kontratu bat indarrean balu, ordezkapen bat egiteko, lan edo zerbitzu jakin baterako edo zeregin-metaketakoa, horri uko egin eta lanpostua estaltzeko eskaintzen zaion bitartekotasun-kontratua har lezake. Indarrean dagoen kontratu bati uko egiteak, kasu honetan, ez du ekarriko zerrendetatik kanpo geratzea. **Lanpostu hutsak betetzeko, oro har, SMS sistema erabiliko da, eta ez da sartuko Ordeztaguneko plazen eskaintzan**".

2. atala.- Hitzarmen kolektiboaren III. eranskineko Funtzionamendu orokorraren salbuespena.

Paragrafo hau aldatzen da:

"Hautagai batek ordezkapen bat burutu badu eta 5 eskola-egun igaro aurretik irakasle bera ordezkatzeko beharra sortzen bada, nahiz eta beste hautagai batzuek puntu gehiago izan, ordura arte lan hori egiten jardun duen hautagaiak izango du lehentasuna ordezkapen hori egiteko".

Paragrafo hori honela geratzen da idatzita:

"Hautagai batek ordezkapen bat burutu badu eta 5 eskola-egun igaro aurretik **hezitzaile** bera ordezkatzeko beharra sortzen bada **ikasturte berean**, nahiz eta beste hautagai batzuek puntu gehiago izan, ordura arte lan hori egiten jardun duen hautagaiak izango du lehentasuna ordezkapen hori egiteko. **Kasu horietan, ordezkapena, lehenik eta behin, ordezkapen hori egiten aritu den hautagaiari eskainiko zaio lan-egiteko moduan badago, eta interesatzen ez bazaio, Ordeztagunen eskainiko da ordezkapena**".

Paragrafo hau gehitzen da:

-Telefono bidezko ordezkapenak salbuespenezko eta premiazko kasuetan baino ez dira eskainiko, baldin eta behar bezala justifikatzen bada ordezkapena kontratua hasi aurreko laneguneko 12:30ak baino beranduago gertatu dela, eta ordezkapena ezinbestekotzat jotzen bada eta, gainera, honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- Hezkuntza laguntzako espezialistaren ordezkapenak gela egonkorretan.



- Hezkuntza laguntzako espezialisten ordezkapenak Hezkuntza Bereziko berriazko ikastetxeetan, zein ospitaleko, etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde zentroetako ordezkapenak.

- Hezkuntza laguntzako espezialista ordezkatzeari, ikastetxe osoan hezkuntza laguntzako espezialista bakarria denean.

Hala ere, ordezkapen horiek egiaztatutako iraupen luzea izango dutela aurreikusten bada, ez dira telefonoz eskainiko, hurrengo Ordezkagunean baizik, era horretako ordezkapenak egiteko hautagaien aukera-berdintasuna bermatzeko.

Kasu larri horiei erantzuteko telefono-deiak Ordezkaguneraren esleipenaren ondoren egingo dira, hurrengo eguneko 10:00ak arte.

Telefonoz egindako eskaintza horiek onartzea borondatezkoa izango da.

Nolanahi ere, premiazko dei horietarako zehaztutako kasuetan egiaztatzen bada kolektibo horren eguneroko ordezkapenen % 30 telefono-deien bidez eskaintzen direla, identifikatutako kasuak berrikusiko dira, hautagaiei egunero eskaintzen diren plazak eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatzeko, eta hori Ordezkagunea sistemaren bidez bermatzen da.

Erabakia, 2020ko martxoaren 13koa, hezitzaileak zerrendetatik kanporatzeari buruzkoa:

Paragrafo hau kendu da:

"Justifikatutako arrazoirik gabe lanaldi oso bateko eskaintzari uko egiten dioten izangaiei, hiru lurraldetan kategoría horretako zerrenda guztietan baja emango zaie bai lanaldi osoetan bai partzialetan; eta, justifikatutako arrazoirik gabe lanaldi partzial bateko eskaintzari uko egiten dioten izangaiei, hiru lurraldetan kategoría horretako zerrenda guztietan baja emango zaie lanaldi partzialetan".

Hezkuntza Saila

LAB

CCOO

UGT

